

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2022ko zergadunaren egutegia

Osoko bilkurak 2021eko urriaren 25ean hartutako erabakiaren bidez, zergadunaren 2022ko egutegia onartu zen.

ALHAOn argitaratzen da, zabaltzeko eta jendeak horren berri izan dezan.

ZERGA	BORONDATEZKO EPEA	HELBIDERATUTAKO ORDAINAGIRIAK KOBRATZEKO DATA
TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ZERGA	01-03-2022 – 30-04-2022	Apirilaren hasieran
HIRI ONDASUN HIGIEZINEN ETA EZAUGARRI BEREZIEN GAINEKO ZERGA	01-05-2022 – 30-06-2022 01-09-2022 – 31-10-2022	Lehenengo epea (kuotaren %50a) – Ekainaren hasieran Bigarren epea (kuotaren %50a) – Urriaren hasieran
LANDA HIGIEZINEN ZERGA	01-05-2022 – 30-06-2022	Ekainaren hasieran
ZABOR-BILKETAREN TASA	01-05-2022 – 30-06-2022	Ekainaren hasieran
ABELTZAINZA-KANONA	01-06-2022 - 31-07-2022	Uztailaren hasieran
LANDAK	01-06-2022 - 31-07-2022	Uztailaren hasieran
JARDUERA EKONOMIKOEN ZERGA	01-11-2022 – 31-12-2022	Abenduaren hasieran
IGERILEKUAK	01-06-2022 – 31-07-2022	Aurreko urteetako abonamenduetarako, baldin eta interesdunak datozen urteetarako berritze automatikoa baimendu badu. - Ekainaren hasieran Urteko abonamendu berrietarako, eskabide-orriarekin batera, tasaren autolikidazioa eta ordainagiria aurkeztu behar dira.
UDALEKUAK		Eskabide-orriarekin batera, tasaren autolikidazioa eta ordainagiria aurkeztu behar dira.
ZENTRO SOZIOKULTURALEKO IKASTAROKAK		Eskabide-orriarekin batera, tasaren autolikidazioa eta ordainagiria aurkeztu behar dira.

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko lekuak:

- Kutxabankaren eta Laboral Kutxaren bulegoetan, likidazioa aurkeztuz.
- Internet bidez, web orri honetan: www.zigoitia.eus (Nire ordainketa).
- Banku-txartelaren bidez, udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak:

Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK

Udaletxean. Telefonoa: 945464041. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.

Faxa: 945464052, e-mail: zigoitia@zigoitia.eus.

AHOLKUAK

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

BETEARAZPEN EPEA

Araututako epea bukatu eta hurrengo egunean hasten da eta betearazte-errekarguak, premiamenduzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ondategin, 2021eko azaroaren 4an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA